



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko otsailaren 3a

18. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 10-23/MOC-00007. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udala premiatzen dira koordinatu daitezzen eta ezkaratzaren lagapena bete ahal izateko behar diren neurriak adostu ditzaten, ahalik eta lasterren behin betiko irtenbide bat emateko Alde Zaharreko osasun-etxearen irisgarritasun-arazoari. EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu du (2. or.).
- 10-23/MOC-00008. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan musika-ikasketa profesionalak Nafarroatik kanpo egiten dituzten ikasleen ekitatea eta aukera-berdintasuna bermatzeko. EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu du (4. or.).
- 10-23/MOC-00009. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Berdintasunerako Institutua premiatzen da berdintasun-teknikarien sarearen egoera hobetzeko proposamen bat egin dezan. Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztu du (5. or.).
- 10-23/MOC-00010. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuo Lurralde Kohesiorako Departamentua premiatzen da Fitero-Cintruénigo-Corella-Castejón-Iruña autobus-zerbitzua berma dezan, egunean joan-etorria egiteko moduan eta hiru ordutegitan, 06:30ean hasita. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (7. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- 10-23/PES-00031. Galdera, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen arau-garapenari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (8. or.).
- 10-23/PES-00032. Galdera, Kultur Ekintza Zerbitzuak arte eszenikoetako eta musikaletako hirugarren sektoreko eragile profesional eta entitateei zuzenduta eginiko deialdien ebazpenei buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (9. or.).
- 10-23/PES-00033. Galdera, Caparrosoko abeltegitzarrari emandako ingurumen-baimen integratua nabarmen aldatzeko eskaerari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (9. or.).

---

**E saila:**

**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**10-23/MOC-00007. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udala premiatzen dira koordinatu daitezen eta ezkaratzaren lagapena bete ahal izateko behar diren neurriak adostu ditzaten, ahalik eta lasterren behin betiko irtenbide bat emateko Alde Zaharreko osasun-etxearen irisgarritasun-arazoari.**

*EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udala premiatzen baitira koordinatu daitezen eta ezkaratzaren lagapena bete ahal izateko behar diren neurriak adostu ditzaten, ahalik eta lasterren behin betiko irtenbide bat emateko Alde Zaharreko osasun-etxearen irisgarritasun-arazoari.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Iruñeko Alde Zaharreko osasun-etxea Compañía plazaren eta Calderería kalearen artean dago. Hirigunean irisgarritasun-arazo bat dago, gaur egun osasun-etxera sartzeko erabiltzen diren ondoko kaleek, hala Calderería kaletik plazarako igoerak nola Xabier kaleak, oztopo arkitektonikoak dituzte (eskalinatak), eta gehiegizko ahalegina

edo traba dakarte mugikortasun urria duten pertsonentzat.

Hala salatu dute behin eta berriz urteetan zehar Alde Zaharreko auzotarrek. 2020ko urtarrilean, osasun-etxean irisgarritasun-hobekuntzak egitea eskatzeko 476 eskabide aurkeztu zituzten Nafarroako Osasun Zerbitzuan, eta guztietan eskatzen zuten Calderería kaletik sarbide bat gaitzea. Era berean, urte horretako martxoaren 10ean, Iruñeko Udaleko Hirigintza Batzordeak aho batez onetsi zuen adierazpen bat zeinetan gobernu-taldeari eskatzen zitzaion Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuarekin harremanetan jartzeko, Alde Zaharreko osasun-etxeko irisgarritasuna hobetzeko beharrezko lanak bizkortze aldera.

Osasun-etxearen beheko solairua Calderería kalearekin komunikatuta dago ezkaratz baten bidez. Erabilera mugatuko espazio pribatua da, 25 metro koadro inguru eta % 8 baino gehiagoko malda ditu, baina gehienetan ate metaliko batekin itxita egoten da. Espazio horrek bi ate ditu; batek galdara-gelara ematen du, eta besteak, osasun etxeko gune komunera. Erabiltzaileek eskatzen dute ate hori sarbide mugatukoa izan dadila hala behar duten pertsonendako. Bideotezain bat soilik paratu beharko litzateke.

Gune pribatua denez eta ohiko kaletzat jotzen ez denez, eta Calderería kaletik ate horretaraino dagoen maldaren ondorioz, zailtasun tekniko eta ekonomiko handia dakar hura egokitzeak eta Eraikuntza Kode Teknikoak (DB-SUA) ezartzen dituen betekizunak betetzeak.

Hori dela-eta, espazio horrek pribatu izateari utziko balio, eta Calderería kalearen partetzat joko balitz, ez lirateke CTEaren betekizun propioak

bete beharko; hortaz, fatxadaren albo batean eta ateraino eskubanda bat paratuta, baita bideoatezain bat ere, osasun-etxeak bigarren sarbide bat izanen luke, erabilera mugatukoa, mugikortasun urriko pertsonentzat.

Errealitate horri erantzute aldera, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legearen eztabaidan zuzenketa bat aurkeztu zen, eta hogeita batgarren xedapen gehigarri gisa txertatu zen. Honako hau da zuzenketa: “Iruñeko Udalari lagatzea Alde Zaharreko osasun-etxearen ondoko ezkaratza, Calderería kalekoa, irisgarritasuna hobetzeko”.

Orain arte ez da kontu hori konpondu, eta ez da bete aipatu xedapenean xedatutakoa. Egia da Nafarroako Gobernuak zenbait urrats egin zituela. Lehenik eta behin, 2022ko martxoaren 9an, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Oinarritzko Osasun Laguntzaren Kudeaketa Ekonomikoaren eta Zerbitzu Orokorren Zerbitzuak txosten bat igorri zion Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, zeinetan Ondare Zerbitzua premiatzen zen behar diren jarduketak sustatu zitzan xedapen horretan ezarritakoa betetzeko.

Ondoren, 2022ko maiatzaren 18an egindako idazki batean, Nafarroako Gobernuak Ondare Zerbitzuko Zuzendaritzak Iruñeko Udalari idazki bat igorri zion; honako hau esaten zen testuaren

amaieran: “Azaldutakoa eta Nafarroako Osasun Zerbitzuak egindako eskaera kontuan izanik, adierazten da lurzatiaren zati hori leheneratzeko asmoa dagoela.

Udalari eskatzen zaio zehaztu dezala zer esparruri eraginen dion leheneratze horrek, eta abia ditzala aurreikuspen hori bete ahal izateko jarduketak egokiak”.

Guk dakigula, orain arte Iruñeko Udalak ez dio erantzun eskaera horri, eta ez da harremanetan jarri Nafarroako Gobernuarekin; beraz, oraindik ez da arazoa konpondu.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legearen hogeita batgarren xedapen gehigarria betetz, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udala premiatzen ditu koordinatu daitezkeen eta ezkaratzaren lagapena bete ahal izateko behar diren neurriak adostu ditzaten, ahalik eta lasterren behin betiko irtenbide bat emateko Alde Zaharreko osasun-etxearen irisgarritasun-arazoari.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## 10-23/MOC-00008. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da behar diren neurriak har ditzan musika-ikasketa profesionalak Nafarroatik kanpo egiten dituzten ikasleen ekitatea eta aukera-berdintasuna bermatzeko.

### EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita behar diren neurriak har ditzan musika-ikasketa profesionalak Nafarroatik kanpo egiten dituzten ikasleen ekitatea eta aukera-berdintasuna bermatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jaso andreak, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko bozeramaile denak,

Legebiltzarreko Erregelamenduari jarraiki, ondoko mozioa aurkezten du Hezkuntza Batzordean eztabaida eta bozka dadin.

Nafarroako hainbat herritako musika eskolatik musika ikasketa profesionalak Nafarroatik kanpo egitera doazen hainbat ikasle ditugu, Iruñerako distantzia geografikoaren eraginez. Berakoe, esate baterako, askoz ere gertuago daukate Irungo Udal Kontserbatorioa Sarasate Kontserbatorio Profesionala edo Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa baino. Afera da tasak askoz ere altuagoak direla Nafarroatik kanpoko kontserbatorioetan, eta oso garesti ateratzen zaiela ikasle horiei ikasketekin jarraitzea.

Hezkuntza Departamentuari egindako galderen erantzunean konparaketa egiten da Nafarroatik kanpoko gertueneko kontserbatorioen artean, eta honako adibidea ematen da:

Aipatu kontserbatorioetan pianoko ikasketa profesionalak egiteko guztirako kostuaren eredia (1. kasuan, ikasgaiez gain, espediente-irekiera eta sartzeko froga batzen dira ere).

	Iruñea	Tarazona	Irun	Calahorra
Kostua 1. maila	259 €	306 €	1379, 15 €	285, 16 €
Kostua 2. maila	211,2 €	236 €	1326,95 €	221, 72 €
Kostua 3. maila	158,4 €	177 €	1450, 70 €	166,29 €
Kostua 4. maila	211,2 €	177 €	1450, 70 €	166,29 €
Kostua 5. maila	316,8 €	354 €	1607,25 €	332,58 €
Kostua 6. maila	264 €	354 €	1607,25 €	332,58 €
Guztira	1420,6 €	1604 €	8822 €	1504,62

Agerikoa denez, Nafarroako hegoaldetik Aragoi edo Errioxara joan behar duten ikasleen kasuan ez dago alde nabarmenik ordaindu beharreko tasetan, baina Nafarroako iparraldetik eta, zehazki, Malerrekatik edo Bortzirietatik Irungo Udal Kontserbatoriora joan behar duten ikasleek sei aldiz gehiago ordaindu behar dute. Alde handia da, beraz, eta ezberdinkeria honen aurrean Nafarroako Gobernuak lurralde kohesioaren ikus-

pegitik neurri zuzentzailearen bat hartzeari ezinbestekoa deritzogu.

Honengatik guztiarengatik, honako ebazpen proposamena aurkeztu dugu

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio musika ikasketa profesionalak Nafarroatik kanpo egiten dituzten ikasleei ekitatea eta aukera berdintasuna bermatzeko beha-

rrezkoa diren neurriak har ditzala, ordaindu beharreko tasen prezioan aldea handia denean nolabaiteko konpentsazioa eginez, izan lankidetzaren formularen bat bilatuz, izan musika eskolei ematen zaien dirulaguntzetan lurralde kohesioa-

ren irizpidea ere txertatuz, edo egoki ikusten den moduan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 26an

Eleduna: Bakartxo Ruiz Jaso

## **10-23/MOC-00009. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Berdintasunerako Institutua premiatzen da berdintasun-teknikarien sarearen egoera hobetzeko proposamen bat egin dezan.**

*PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Berdintasunerako Institutua premiatzen baita berdintasun-teknikarien sarearen egoera hobetzeko proposamen bat egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak 2022ko ekainean onetsi zuen 2022-2027 aldirako Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Nafarroako Plan Estrategikoa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean ezarritako helburuei erantzuna emateko; lege horren helburu nagusia 1. artikuluan jasota dator eta xedetzat du dagozkion

baldintzak sustatzea Konstituzioan jasotako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eskubidea egiazkoa eta eraginkorra izan dadin Nafarroako Foru Komunitatean, bizitzaren eremu eta etapa guztietan.

Plan estrategikoak zenbait ildo zehazten ditu. Horietako batek, zehazki lehenengoak, jasotzen du genero-ikuspegia foru administrazioen eta toki administrazioen gobernantza-ereduan txertatzearen garrantzia. Ildo beraren barruan jasota dator berriazko arlo bat, zeinak adierazten baitu beharrezkoa dela berdintasunerako Foru eta tokiko egiturak indartzea eta finkatzea.

Bestalde, apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak jasotzen ditu toki entitateei berdintasunaren eremuan garatzea dagozkien hamabi eginkizunak, lege horren xedea lortze aldera gauzatu beharrezkoak. Hamabi horien artean honako eginkizun hauek aurki ditzakegu:

a) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko politikaren arloko helburuak eta jarraibideak ezartzea beraien lurraldean, Nafarroako Foru Komunitatearen politikekin koordinatuta.

b) Beraien jarduketa guztietan genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna txertatzeko behar diren tresnak ezartzea.

c) Udal jardunaren eremu guztietan desparekotasuna eta diskriminazioak desagerrarazteko politikak gauzatzea.

d) Emakumeen gabeziak eta beharrak aztertu eta atzematea, foru lege honen helburuak betetzeko kasuko lurralde-eremuan.

e) Emakumeei arreta, informazioa eta orientabideak ematea eskura dituzten programa eta baliabideei buruz, beraien eskubideak egiaz erabil ditzaten laguntzeko.

f) Herritarrak sentsibilizatzea, balio aldaketa sustatuz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen laguntzeko.

Eginkizun horiek guztiak gauzatzeko, beharrezkoa da administrazioak gai horretan adituak diren teknikariek hornitzea, hau da, berdintasun-teknikariek.

Sareak egindako diagnostikoak erakusten du badaudela zenbait gabezia eta zailtasun, zeinei aurre egin behar zaien dagozkien eginkizun guztiak zuzen bete ahal izateko. Zailtasunez bezainbatean, hauxe azpimarratu zuten:

– Homogeneotasun falta lurralde osoan lan horiek gauzaterakoan, figura hori ez baita toki entitate guztietara iristen.

– Figura horretarako finantzaketa asko puntuala da, eta horrek askotan zaildu eta eragotzi egiten du toki entitateek egin behar dituzten berdintasuneko politika publikoak etorkizunera begira planifikatzea eta proiektatzea.

– Bakardade eta koordinazio zein plangintza ezaren sentsazioa, jarduteko irizpideak bateratzeko eta aurrerapenak ebaluatzeko...

Hutsuneei aurre egin eta egindako lana hobetu eta optimizatzeko asmoz, betiere Gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko foru legeak ezartzen dituen helburuen garapenean aurrerapausoak emateko, honako proposamen hau egingen dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Berdintasunerako Institutua premiatzen du ahalik eta lasterren:

– Berdintasun-teknikarien sarearen egoera hobetzeko proposamen bat egin dezan, baita figura horren hedapen progresiboa egitekoa ere, modu batean edo bestean sarea Nafarroako Foru Komunitate osoan bermatuta egon dadin.

– Planifikazio bat egin dezan, arian-arian lanpostu horien epe luzerako egonkortasuna berma dadin.

– Koordinazio-esparru finkoa sortu dezan, legeak ezartzen dituen edukiak lantzeko eta horiek toki entitateetan eta mankomunitateetan gauzatu ahal izateko.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

## **10-23/MOC-00010. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentua premiatzen da Fitero-Cintruénigo-Corella-Castejón-Iruña autobus-zerbitzua berma dezan, egunean joan-etorria egiteko moduan eta hiru ordutegitan, 06:30ean hasita.**

### *IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentua premiatzen da Fitero-Cintruénigo-Corella-Castejón-Iruña autobus-zerbitzua berma dezan, egunean joan-etorria egiteko moduan eta hiru ordutegitan, 06:30ean hasita.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Par-

lamentuko Lurralde Kohesiorako Batzordean eztabaidatzeko:

Duela urtebete baino gutxiago, Nafarroako Gobernuari galdetu genion Cintruénigo, Fitero eta Corellako udalerrietako herritarrei eragiten zieten (egun ere oraindik eragiten diete) hiriarteko garraioaren hutsuneen inguruan; izan ere, herri horietako herritarren beharrekin bateraezinak diren ordutegiak pairatzen dituzte, ezin dituztelako egin haien gestioak egunean berean.

Departamentuak datorren martxotik aurrera begira aurreikusten duen irtenbideak herri horiek Iruñearekin lotzen dituen linea erregularra kentzea dakar, eta Tuteran autobus-aldaketa bat egin behar izatea.

Kaltetuak Alhamaren ibarreko 22.800 biztanleak dira, bereziki Iruñera hitzordu mediko batera, ikastera edo lanera joaten direnak.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentua premiatzen du Fitero-Cintruénigo-Corella-Castejón-Iruña autobus-zerbitzu bat berma dezan, egunean joan-etorria egiteko moduan eta hiru ordutegitan, goizeko 06:30ean hasita.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**10-23/PES-00031. Galdera, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen arau-garapenari buruzkoa.***MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko galdera, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen arau-garapenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 30ean  
Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2019ko apirilaren 4an onetsi zen Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea.

Gaur egun, zer arau-garapen du lege horrek eta legealdi hau amaitu aurretik legea garatzeko zer aurreikuspen ditu Kultura eta Kirol Departamentuak?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 24an  
Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero



## **10-23/PES-00032. Galdera, Kultur Ekintza Zerbitzuak arte eszenikoetako eta musikaletako hirugarren sektoreko eragile profesional eta entitateei zuzenduta eginiko deialdien ebazpenei buruzkoa.**

*CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkezturiko galdera, Kultur Ekintza Zerbitzuak arte eszenikoetako eta musikaletako hirugarren sektoreko eragile profesional eta entitateei zuzenduta eginiko deialdien ebazpenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko foru parlamentari Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Kultur Ekintza Zerbitzuak arte eszenikoetako eta musikaletako hirugarren sektoreko eragile profesional eta entitateei zuzenduta eginiko deialdien ebazpenei dagokienez, zer analisi egiten du Kultura eta Kirol Departamentuak?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

## **10-23/PES-00033. Galdera, Caparrosoko abeltegizarrari emandako ingurumen-baimen integratua nabarmen aldatzeko eskaerari buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Caparrosoko abeltegizarrari emandako ingurumen-baimen integratua nabarmen aldatzeko eskaerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan, eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

Valle De Odieta SCL eta Hibridación Termosolar SL merkataritza-enpresen titulartasuneko den Caparrosoko abeltegizarrari emandako Ingurumen Baimen Integratuan –Ingurumeneko zuzendari nagusiaren martxoaren 12ko 222E/2021 Ebazpenaren bidez onetsia– baimena eman zen “esnetarako 7.200 behi heldu (6.500 inguru ekoizten eta 700 bat lehortze-aldian eta erditze-aurretiko aldian), eta ernaldiko azken hilabeteetan dauden bigantxen eta 40 egunera arteko aratxeen

600 buru” edukitzeko. Hau da, 7.620 azienda larriko unitate (AzLU) inguru.

Ingurumen-baimen integratua eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arruntean aldaketa funtsezko bat egiteko prozeduraren –Valle de Odieta SCL / Hibridación Termosolar Navarra SLk sustatua– iragarkia 2023ko 11. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, urtarrilaren 17koan, argitaratu zen. Aurkeztutako proiektuan adierazi zen haxe litzatekeela instalazioan egonen zen abere-kopurua: “7.200 behi ugaltzaile, urte bat baino gutxiagoko 700 aratxe eta 600 bigantxa (7.900 AzLU)”. Ikus daitekeen bezala, kopuru hori nabarmen handiagoa da egun ustiategiak duen Ingurumen Baimen Integratuak baimendutakoarekin alderatuta.

Etorkizuneko egoerari dagokionez, proiektua onartuko balitz, honako abere-kopuru hau balioztatuko litzateke: “7.900 behi ugaltzaile, urte bat baino gutxiagoko 2.172 aratxe eta 1.300 bigantxa (9.678,80 AzLU)”. Proiektuak berak zenbatutakoarekin bat, horrek abeltzaintza-ustiategia % 22,52 hedatzea dakar. Hala eta guztiz ere, sustatzaileak egin nahi duen handitzea eta gaur egun Ingurumen Baimen Integratuak baimentzen duen abere-kopurua alderatuz gero, aurreko paragrafoan aipatu den bezala, handitze hori % 27,01ekoa litzateke.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakizkidan:

1.- Ustiategiaren titularrak esaten duen bezala, gaur egun dagoen abere-kopurua “7.200 behi ugaltzaile, urte bat baino gutxiagoko 700 aratxe eta 600 bigantxa (7.900 AzLU)” bada, Departamentuak uste al du errespetatzen ari dela Ingurumeneko zuzendari nagusiaren martxoaren 12ko 222E/2021 Ebazpenean –zeinetan Ingurumen

Baimen Integratua onetsi baitzen– ezarritako muga?

2.- Zer ekintza edo jarduketa egiteko asmoa du Departamentuak, abeltegizarraren titularrak diren merkataritza-enpresek errespetatu dezaten “esnetarako 7.200 behi heldu (6.500 inguru ekoizten eta 700 bat lehortze-aldian eta erditze-aurretiko aldian), eta ernaldiko azken hilabeteetan dauden bigantxen eta 40 egunera arteko aratxeen 600 buru” (7.620 AzLU) edukitzeko muga?

3.- Zehapen-espediterik ireki behar al zaie merkataritza-enpresa horiei Ingurumeneko zuzendari nagusiaren martxoaren 12ko 222E/2021 Ebazpenean –zeinetan Ingurumen Baimen Integratua onetsi baitzen– ezarritako mugak gainditu izateagatik?

4.- Departamentuak uste al du AzLU-kopurua Caparrosoko abeltegizarraren titularrek eskatzen duten modu horretan aldatu daitekeela, hau da, “7.900 behi ugaltzaile, urte bat baino gutxiagoko 2.172 aratxe eta 1.300 bigantxa (9.678,80 AzLU) edukitzera pasatu daitezkeela?”

5.- Eskatutako baldintza horietan, ez al du uste Departamentuak handitze hori bateraezina dela oinarritzko legeria arautzen duen abenduaren 27ko 1053/2022 Errege Dekretuak –zeinak behi-azien-dak antolatze oinarritzko arauak ezartzen baititu– 16. artikuluko 4. eta 5. apartatuetan eta lehen xedapen iragankorrean xedatutakoarekin?

6.- Oinarritzko legeria hori ikusita, zer erabaki hartuko du Departamentuak? Ukatu egingen al da eskatutako Ingurumen Baimen Integratuaren aldaketa funtsezkoa?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique



